Behin-behineko ebazpena behin betikoa izango da baldin eta proposaturiko erakunde onuradunek une oro eta deialdiko laguntzak izapidetu eta kudeatzen diren bitartean betetzen badituzte foru-dekretu honetan ezarritako zerga betebeharrak.

3. Ebazpena eskabidean jarri den tokian jakinaraziko zaie interesdunei, edo elektronikoki, egoitza elektronikoa jarrita; halakorik ezin bada, jakinarazpenetarako egokia den beste tokiren batean, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikulutik 42ra xedatutakoaren arabera eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Laguntzak ematea onartuko duen ebazpenean, kasu bakoitzerako baldintza espezifikoak jaso ahal izango dira; baldintza horiek bete beharrekoak izango dira onuradunentzat.

5. Foru-dekretu honetan arautu diren dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan, ez bera bakarrik, ezta beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, erakunde eskatzaileak egingo duen jardueraren kostua baino handiagoa.

6. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, jurisdikzio horretan eskumena duen Administrazioarekiko Auzien Salan. Hala ere, aukerako berraztertze-errekurtsoa ere jarri ahal izango zaio Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Saileko foru diputatuari, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoarekin bat. Horretarako, hilabeteko epea izango da, jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

Una vez realizadas las operaciones contables necesarias para realizar la concesión, la Diputada Foral de Medio Natural y Agricultura emitirá la resolución definitiva del procedimiento.

En el caso de que se haya tenido que hacer un reparto proporcional mediante prorrateo entre las personas beneficiarias de la subvención, del importe global máximo destinado a la subvención y entre la resolución provisional y la definitiva aquí descrita haya variaciones debido a incumplimientos en materia de obligaciones tributarias no se procederá a un nuevo reparto de las cantidades que no haya podido ser concedidas por efecto de esos incumplimientos.

La resolución provisional resultará definitiva en el caso de que las entidades beneficiarias propuestas cumplan en todo momento y durante la tramitación y gestión de las ayudas convocadas, con las obligaciones tributarias establecidas en el presente decreto foral.

3. La Resolución se notificará a las personas interesadas en el lugar señalado a tal efecto en la solicitud o electrónicamente mediante su puesta a disposición en la sede electrónica, en su defecto, en cualquier lugar adecuado a tal fin, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 40 a 42 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre y se publicará en el Boletín Oficial de Bizkaia.

4. La Resolución de concesión de las ayudas podrá incluir condiciones específicas para cada caso, que serán de obligado cumplimiento para los/as beneficiarios/as.

5. El importe de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la Entidad solicitante.

6. La Resolución pondrá fin a la vía administrativa y contra la misma podrá interponerse recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses ante la Sala de lo Contencioso Administrativo competente de este Orden Jurisdiccional, sin perjuicio, de la interposición, con carácter potestativo, de Recurso de Reposición en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a la recepción de la notificación de acuerdo con los artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre ante la Diputada Foral del Departamento de Medio Natural y Agricultura.





Maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 17. artikulua ezarritako araberako, foru-dekretu honen babesean ematen diren dirulaguntzak urtero argitaratuko dira Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, baldin eta laguntza horien zenbatekoa 3.000 eurokoa edo hortik gorakoa bada.

11 oinarria. *Dirulaguntzaren onuradun den elkartearen betebeharrak.*

Foru-dekretu honetan araututako dirulaguntzen erakunde onuradunek, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 13. artikuluan oro har ezarritako betebeharrak gainera, honako hauek ere bete behar dituzte, betiere:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Ildo horretatik, onuradunak hamar eguneko epean —dirulaguntza ematen dion jakinarazpena jasotzen duen egunetik Aurrera zenbatuta—berariaz eta idatziz edo horretara argi bideratutako ekintzak eginez uko egiten ez badio dirulaguntzari, dirulaguntza onartutzat joko da. Ordutik aurrera, kontrol eta zehapenen araubidearen mende egongo da.

b) Dirulaguntza eman den helburu zehatzerako eta emateko edo, hala badagokio, likidatzeko foru aginduan ezarritako baldintzen araberako erabiltzea.

c) Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari eta Ogasun eta Finantza Sailari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, beren eskumenak erabilita, foru-dekretu honen kontura jasotako dirulaguntzei buruz eskatzen duten informazioa ematea eta kontrolen menpe goatea.

d) Dirulaguntza eman duen erakundeari jakinaraztea helburu bererako beste dirulaguntza bat edo batzuk jaso dituela beste administrazio edo erakunde batetik.

e) Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailari laguntza ematea, arlo hauek direla eta egiten dituen eskakizunetan: landare-ekoizpena, -osasuna eta -higienea, mahastizaintza eta enologia. Horrez gainera, azterlan, datu estatistiko eta sektoreari buruzko informazioa ere eman beharko diote. Gai horri dagokionez, informazioa sexuaren eta adinen araberako banatua ematen saiatu behar da, eta gobernu-organismoetan sexuen ordezkariak orekatu egon dadila bultzatu.

f) Urtean behin, jarraipen-bilera arrunt bat egingo da erakunde onuradun bakoitzaren eta Nekazaritza Zerbitzuari atxikitako teknikarien artean.

De conformidad con lo establecido en el artículo 17 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, se publicarán en el Boletín Oficial de Bizkaia, con carácter anual, las subvenciones concedidas en el ejercicio al amparo de este Decreto Foral cuyo importe sea igual o superior a 3.000 euros.

Base 11. *Obligaciones de la entidad beneficiaria de la subvención.*

1. Las Entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en este Decreto Foral deberán cumplir, en todo caso además de las obligaciones establecidas con carácter general en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, las siguientes:

a) Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de diez días desde la fecha de recepción de la notificación de la concesión de la subvención la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, así como en el caso de realización de actos inequívocos en tal sentido, se entenderá que ésta queda aceptada. A partir de entonces estará sometido/a al régimen de control y sanciones.

b) Utilizar la subvención para el destino concreto para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la Orden Foral de concesión o de liquidación en su caso.

c) Someterse a los controles y facilitar a los Departamentos de Medio Natural y Agricultura y de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a este Decreto Foral.

d) Comunicar a la Entidad concedente la obtención de otra u otras subvenciones para la misma finalidad procedentes de otra administración o entidad.

e) Colaborar con el Departamento de Medio Natural y Agricultura en aquellas cuestiones que le sean requeridas, en el ámbito de la producción, sanidad e higiene vegetal, viticultura y enología, y aportando, además, cualquier tipo de información relativa a estudios, datos estadísticos, y sectoriales. En este sentido también, se procurará que la información venga desagregada por sexos y edades, y se incentive una representación equilibrada de sexos en los órganos de gobierno.

f) Con carácter ordinario, una vez al año se celebrará una reunión de seguimiento entre cada una de las asociaciones beneficiarias y el personal técnico adscrito al Servicio Agrícola.





g) Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 17. artikuluko 3. zenbakian xedatutakoaren arabera, dirulaguntza jasotzen duten erakunde onuradunek behar den moduan emango dute argitara dirulaguntza jaso duen jarduketaren finantzaketa publikoa dela, jarduerarekin zerikusia duen dokumentazio grafiko eta informatibo guztian.

Gainera, Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauan araututako publizitate aktiboko arauak aplikatuko zaizkie erakunde pribatuei, baldin eta aurrekontu-ekitaldi batean gutxienez 100.000 euroko laguntzak edo dirulaguntzak jasotzen badituzte Bizkaiko Foru Aldunditik, edo urteko diru- sarrera guztien ehuneko 40 Aldundiaren laguntza edo dirulaguntza publikoa bada, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

Era berean, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 9.1.g) artikuluaen arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak Publiko egin behar du erakunde onuradunari buruz emandako diru-laguntzei buruzko informazioa, diru- laguntzaren zenbatekoa eta xedea, bai eta, hala badagokio, diru-laguntzaren helburuak behar bezala betetzen direla gainbegiratzeko egindako kontrol- ekintzak era. Informazio hori Gardentasun Arauan araututako Gardentasun Atarian argitaratu beharko da.

h) Erakunde onuradunak nahitaez bete beharko da Dirulaguntzei buruzko 5/2005 Foru Arauaren 29. artikuluan xedatzen dena; alegia, gutxienez hiru eskaintza eskatu behar dizkie hornitzaile desberdinei, baldin eta diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoak kopuru hauek gainditzen baditu:

1) Obra-kontratuak: 40.000 euro, BEZik gabe.

2) Zerbitzu- eta hornidura-kontratuak: 15.000 euro, BEZik gabe.

Aurkeztutako eskaintzen artean, proposamen ekonomikorik onena aukeratuko da, salbu eta erakunde eskatzaileak berariaz beste aukeraketa bat justifikatzen badu eta Nekazaritza Zerbitzuak onartzen.

g) De conformidad con lo dispuesto en el artículo 17.3 de la Norma Foral 5/2005 de Subvenciones, las entidades beneficiarias deberán dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de la actuación subvencionada en toda la documentación gráfica y/o informativa relacionada con la misma.

Además, resultarán de aplicación las normas de publicidad activa reguladas en la Norma Foral 1/2016 de Transparencia a aquellas entidades privadas que durante un ejercicio presupuestario perciban de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 por ciento del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Asimismo, conforme al artículo 9.1g) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero de Transparencia de Bizkaia, la Diputación Foral de Bizkaia debe hacer pública la información relativa a las subvenciones otorgadas con referencia a la entidad beneficiaria, la cuantía de la subvención y el objeto de la misma, así como los actos de control realizados, en su caso, para supervisar el correcto cumplimiento de las finalidades de la subvención. Dicha información deberá publicarse en el Portal de Transparencia regulado en la Norma de Transparencia.

h) La entidad beneficiaria deberá dar cumplimiento a lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral de Subvenciones 5/2005, que obliga a solicitar como mínimo 3 ofertas a diferentes proveedores, cuando el importe del gasto subvencionable supere las siguientes cuantías:

1º Caso de obras: 40.000 euros, IVA excluido.

2º Caso de servicios y suministros: 15.000 euros, IVA excluido.

La elección entre las ofertas presentadas deberá recaer en la propuesta económica más ventajosa, salvo que la entidad solicitante justifique expresamente otra elección y sea aceptada por el Servicio Agrícola.





i) Erakunde onuradunak diruz laguntzen diren jardueren % 100eraino azpikontratatu ahal izango du, baldin eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

Diruz lagundutako jarduketak bat kanpoko kontratazioaren bidez egitekoa denean, dirulaguntza jasotzen duen erakundeak egingo du diruz lagunduko den kontratazio-prozedura guztia (fase guztiena). Horrez gainera, berak bideratuko ditu kasuan kasuko jarduketak zuzen eta osorik egiteko behar diren izapide eta baimen guztiak, lanen hasieratik lanak behin betiko hartu arte. Era berean, kontratazioaren ondoriozko betebeharren erantzukizun eskusiboa izango dute jarduketan onuradun direnen aurrean.

j) Berdintasunaren arloko betebeharrak:

1) Pertsona fisiko edo juridikoen emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatu beharko dute lanpostuen definizioan, lanpostuetan sartzean, kontratatzean eta azkentzean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasun eta osasunean, ordainsari-politikan, erantzukidetasunean eta bizitza pertsonala, lanekoa eta familiakoa uztartzean, laneko kalitatean eta egonkortasunean, lanaldiaren iraupenean eta antolamenduan, eta ekintza sindikalean, ordezkartzean eta negoziazio kolektiboan, lan-baldintza duinak, duinak eta ez-diskriminatzaileak ziurtatuz.

2) Pertsona fisiko edo juridikoen zaindu beharko dute emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak direla, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzukidetasunaren eta generorol eta -identitate anitzen balioak dituen irudia sustatzen dutela, bai idatzizko informazioan, ahozkoan, ikonografikoan, publizitate-ekintzetan, barne- eta kanpo-komunikazioan, formalean eta informalean, bai proiektua edo jarduera gauzatzearekin lotutako materialetan.

3) 50 pertsonatik gorako plantilla duten pertsona fisiko edo juridikoen emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Legean jasotako emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana edukitzeko betebeharra betetzen dutela egiaztatzea beharko dute, bai eta plan hori benetan aplikatzen dela ere.

4) Hamabost langile baino gehiago dituzten pertsona fisiko edo juridikoen lan-eremuan indarkeria matxista prebenitzeko, jarduteko, jarraipena egiteko, ebaluatze eta desagerrarazteko neurriak hartuko direla bermatu beharko dute, bereziki sexu-jazarpenari eta sexuan oinarritutako jazarpenari buruzkoak.

i) La entidad beneficiaria de la subvención podrá contratar hasta el 100% de las actividades subvencionadas, siempre y cuando se respeten los requisitos y prohibiciones establecidos en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Cuando la actuación subvencionada vaya a ser ejecutada mediante contratación externa, la entidad beneficiaria de la subvención llevará a cabo la tramitación, en todas sus fases, del procedimiento de contratación, así como de cuantos trámites y autorizaciones sean precisos para la correcta y total ejecución de las actuaciones de que se trate, todo ello desde el inicio de los trabajos hasta la recepción definitiva de los mismos. Así mismo se responsabilizarán, con carácter exclusivo, de las obligaciones derivadas de la contratación frente a quienes resulten adjudicatarias de las actuaciones.

j) Obligaciones en materia de igualdad:

1º Las personas físicas o jurídicas deberán promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral, política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

2º Las personas físicas o jurídicas deberán velar porque el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

3º Las personas físicas o jurídicas con una plantilla superior a 50 personas deberán acreditar el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como de su aplicación efectiva.

4º Las personas físicas o jurídicas con más de quince personas trabajadoras en plantilla deberán garantizar la adopción de medidas para prevenir, actuar, dar seguimiento, evaluar y erradicar la violencia machista en el ámbito laboral, y específicamente las relativas al acoso sexual y acoso por razón de sexo.





k) Entitateen laguntza jasotzen duten elkarteek euskara erabili beharko dute diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan, bai eta liburuxka, kartel edo jardueraren publizitatea egiteko erabilitako beste edozein euskarritan ere.

2. Erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute dirulaguntza horiei buruzko kontabilitate bereizia mantentzeko, baldin eta merkatuan eragina izan dezaketen jarduerak gauzatzen badira.

12. oinarria. *Emandako dirulaguntzaren justifikazioa. Aurkeztu beharreko dokumentazioa.*

1. Dirulaguntza jaso dezaketen jarduerak dira 2026ko abenduaren 31ra arte egindakoak.

Eskabidea egin eta hurrengo ekitaldiko martxoaren 1a baino lehen, onuradunek honako agiri hauek bidali beharko dituzte Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Zerbitzura, gastuen frogagiriak dituen justifikazio-kontuaren modalitatearen bidez (martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuak onartutako Dirulaguntzei buruzko Foru Erregelamenduaren 57. artikuluan dago araututa):

a) Egindako jardueren justifikazio-memoria, jarduerak nola egin diren azaltzeaz gainera lortutako helburuak eta nabarmendu beharreko gainerako egitaketak jasoko dituena. Halaber, memoriak, oro bat, jardueretan egindako sexuaren arabeko estatistikak jasoko ditu.

Bazkideentzako eskuragarri egon beharko zen eskuraturiko ezagutza, informazio tekniko eta bildutako dokumentazioa, bai eta haietatik lorturiko emaitzak ere.

k) Las asociaciones receptoras de una ayuda de las entidades deberán utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada, así como en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad.

2. Las entidades beneficiarias se comprometen a mantener una contabilidad separada sobre estas subvenciones en el caso de que se ejerzan actividades que puedan interferir en el mercado.

Base 12. *Justificación de la subvención concedida. Documentación a presentar.*

1. Son subvencionables las actividades realizadas hasta el 31 de diciembre de 2026.

Con anterioridad al 1 de marzo del ejercicio siguiente al de solicitud, las beneficiarias deberán remitir al Servicio Agrícola de la Diputación Foral de Bizkaia los siguientes documentos, mediante la modalidad de cuenta justificativa con aportación de justificantes de gasto, regulada en el artículo 57 del Reglamento Foral de Subvenciones, aprobado por Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo:

a) Memoria justificativa de las actividades realizadas, describiendo la realización de las actuaciones, objetivos alcanzados y demás hechos relevantes. Así mismo, esa memoria contendrá las estadísticas segregadas por sexo que se hayan elaborado en la realización de estas.

Con carácter general, el conocimiento, así como la información técnica y documentación recabada, además de las conclusiones y resultado obtenidos de las mismas deberán estar a disposición de las personas asociadas.





Foru-dekretu honen babesean finantzatzeko eskatzen diren espedizio teknikoekin lotutako helburuak justifikatzeko, txosten tekniko bat egingo da. Txosten horretan, bildutako informazio teknikoa eta dokumentazioa jaso beharko dira, bai eta kasu bakoitzean ateratako ondorioak eta lortutako emaitzak ere. Edozein elkartekideren eskura egon beharko du txosten horrek. Gainera, eskuratutako ezagutza helarazteko, gutxienez dibulgazio-jardunaldi bat egin beharko da, eta elkarteko kide guztiak gonbidatu beharko dira bertara.

b) Diru-sarrera eta gastuen memoria ekonomiko zehatza, dirulaguntzei buruzko foru arauaren 57.artikuluari jasotzen denaren arabera.

Obren kasuan, diruz lagundu daitekeen gastuaren zenbatekoa 40.000 euro baino gehiago denean (BEZik gabe) eta zerbitzu eta horniduren kasuan, 15.000 euro baino gehiago (BEZik gabe), onuradunak, eskabidearekin batera, hau aurkeztu beharko du: gutxienez ere hiru hornitzaileen eskaintzak eskatu izana egiaztatzen duen ziurtagiria, salbu eta diruz laguntzeko gastuen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ez badago ondasun horiez hornitzeko edo zerbitzu horiek egiteko nahikoa erakunde.

c) Fakturak edo ordainketa-frogagiriak laguntzaren xede den gastuari dagozkionak laguntza onartu zen ekitaldikoak.

d) Ordainketa benetakoa dela egiaztatzeko, banku-transferentziak edo -tituluak erabiliko dira. Kopuru bat eskudirutan ordaindu bada, ezin izango da hornitzaileko 1.000 eurokoa edo handik gorakoa izan (edo, hala denean, aplikatzeko den araudiak ezarritakoa); edozein kasutan, fakturek data eta hornitzailearen sinadura jasoko dituzte, edo pertsona horren kobrantzaren ziurtagiriekin batera aurkeztuko dira.

e) Aurrez ikusitako programa edo jarduera garatzeko erakundeak argitaratzen dituen argitalpenak, liburuxkak edo edozein motatako agiri grafikoak, multimedialakoak edo informatikakoak. Ale horietan Bizkaiko Foru Aldundiko Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak jarduera horretarako dirulaguntza eman duela agertu behar da. Betebehar hori bakarrik dagokie egindako jarduerari.

f) Dirulaguntza jaso duen jardueraren publizitatean eta zabalkundeetan (euskarri grafikoan zein ikus-entzunezkoetan) hizkuntza ofizial biak erabili direla egiaztatzen duten agiriak.

13. oinarria. Emandako dirulaguntzen ordainketa.

Dirulaguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, dirulaguntza ematen denean. Horretarako, erakunde onuradunei ez zaie inolako bermerik eskatuko, dirulaguntzen izaera dela eta.

La justificación de las finalidades relacionadas con expediciones técnicas cuya financiación se solicite al amparo de este decreto foral, se materializará en un informe técnico. El informe deberá incluir la información técnica y documentación recabada, además de las conclusiones y resultados obtenidos en cada caso. El informe estará a disposición de cualquier persona asociada. Además, el traslado del conocimiento adquirido deberá realizarse al menos mediante una jornada divulgativa a la que deberán ser invitadas todas las personas pertenecientes a la asociación.

b) Memoria económica detallada de ingresos y gastos con el contenido recogido en el artículo 57 del Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías de 40.000 euros I.V.A. excluido, en el caso de obras y 15.000 euros I.V.A. excluido, en el caso de servicios y suministros, la persona beneficiaria deberá acreditar haber solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten.

c) Facturas o documentos justificativos de pago, correspondientes al ejercicio de aprobación de la ayuda, de la realización del gasto objeto de la ayuda.

d) La efectividad del pago se acreditará mediante transferencia bancaria o títulos bancarios. Cuando alguna cantidad se haya pagado en metálico, ésta no podrá ser igual o superior a 1.000 euros por proveedor (o a la cantidad que, en su caso, establezca la normativa aplicable) y en todo caso, las facturas vendrán fechadas y firmadas por la persona proveedora o se acompañarán de certificados de cobro de dicha persona.

e) Ejemplares de publicaciones, folletos, o cualquier documentación de carácter gráfico, multimedia o informática, elaborados para el desarrollo del programa o actividad previstas; debiendo constar en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por el Departamento de Medio Natural y Agricultura de la Diputación Foral de Bizkaia. Dicha obligación afecta a las actividades realizadas.

f) Documentación acreditativa de la utilización de ambas lenguas oficiales en la publicidad, difusión de la actividad objeto de subvención, tanto en soporte gráfico como en medios audiovisuales.

Base 13. Pago de las subvenciones concedidas.

El abono de las subvenciones se realizará en un único pago cuando se realice la concesión de la subvención, no exigiéndose para ello garantía alguna a las Entidades beneficiarias, dada la naturaleza de las propias subvenciones.





14. oinarria. *Laguntzen bateragarritasuna.*

Foru-dekretu honetan aurrez ikusitako laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde edo entitate publiko edo pribatu batzuek emango duten beste edonolako dirulaguntza edo laguntzarekin, xedapen honek diruz laguntzen dituen gastuei aurre egiteko, betiere laguntza guztiek batera dirulaguntza jaso dezaken gastuaren zenbateko osoa gainditzeko ez badute. Halakoetan, laguntza horien zenbatekoa gutxituko da, muga hori ez gainditzeko.

Foru-dekretu honetan arautu diren dirulaguntzen zenbatekoa ezingo da inoiz izan, ez bera bakarrik, ezta beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batuta, erakunde eskatzaileak egingo duen jardueraren kostua baino handiagoa.

15. oinarria. *Baldintzak aldatzea eta ez betetzeak.*

1. Kasu bitan gerta daiteke dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu behar izatea: batetik, laguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatu denean, baina laguntzaren xedea betetzat jotzen bada betiere; bestetik, eta hala badagokio, diruz lagundu daitekeen gehieneko kopurua gainditzeko denean, laguntzaz batera beste dirulaguntza batzuk lortu direlako. Horretarako, aldaketarako ebazpena emango du Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak; ebazpen horren bidez doitu egingo dira emandako dirulaguntzak.

2. Erakunde onuradunak betetzen ez baditu foru-dekretu honetan zein emandako dirulaguntza onesteko ebazpenean ezarritako baldintzak eta helburua, edo beharrezko baldintzak izan gabe lortzen badu dirulaguntza, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du; beraz, hala badagokio, jasotako diru-kopuruak zein aplikatu beharreko legezko interesak itzuli behar izango dizkio Bizkaiko Foru Ogasunari, foru-dekretu honen

15. oinarrian eta oinarri horren ondokoetan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, Foru-administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, bestelako neurriak ere ezarri ahal izango dira. Diru-kopuru horiek diru-sarrera publikotzat joko dira dagozkien legezko ondorioetarako.

Base 14. *Compatibilidad de las ayudas.*

La concesión de las ayudas previstas en el presente Decreto Foral será compatible con la obtención de cualquier otro tipo de subvención o ayuda concedida por otras instituciones o entidades públicas o privadas para sufragar los gastos auxiliares por la presente disposición siempre y cuando el total de las ayudas no supere la totalidad del gasto auxiliable. En caso contrario se minorará la cuantía de la ayuda de modo que no se sobrepase dicho límite.

El importe de las subvenciones reguladas en el presente Decreto Foral, en ningún caso podrá ser de tal cuantía que aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones o ayudas, supere el coste de la actividad a desarrollar por la Entidad solicitante.

Base 15. *Modificación de las condiciones e incumplimientos.*

1. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta por la concesión de las ayudas siempre que se entienda cumplida el objetivo de esta y, en su caso, la superación del límite máximo de la cuantía subvencionable por obtención concurrente de otras subvenciones podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por el Departamento de Medio Natural y Agricultura se dictará la oportuna modificación de resolución en la que se ajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

2. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de las condiciones y finalidad establecidas en este Decreto Foral y en la resolución aprobatoria respecto de la subvención concedida, así como su obtención sin reunir las condiciones requeridas para ello, implicará la pérdida del derecho a percibir la ayuda concedida y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Hacienda Foral de Bizkaia las cantidades que hubiere percibido, así como los intereses legales que resulten de aplicación, en los términos establecidos en las bases 15 y siguientes de este Decreto Foral, sin perjuicio de las acciones que procedan conforme a lo dispuesto Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el Régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral. Dichas cantidades tendrán la consideración de ingresos a los efectos legales pertinentes.





3. Pertsona onuradunek eman zaien dirulaguntzari uko egin ahal izango diote beren ekimenez, eta hala jakinaraziko diote Nekazaritza Zerbitzuari. Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko Sailak, foru-agindu bidez, dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, Dirulaguntzen Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona onuradunak itzulketa benetan egin duen unea arte.

4. Jarduera baterako ematen diren laguntzak beste xede baterako erabiliz gero, itzuli egin beharko da dirulaguntza.

Erakunde eskatzaileak daturen bat ezkututzen badu, dirulaguntza itzultzeko eskatzea ekarri ahalko du horrek, eta, gainera, kasuan-kasuan dagozkion berandutze-interesak ere ordaintzea.

Dekretu honen 11. oinarrian dokumentazioa aurkezteko ematen den epea igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, dirulaguntza itzultzeko prozedura abiaraztea erabakiko da. Horren aurretik, errekerimendua egingo da, hala ere, dokumentazioa hamabost egun baliodunen epean aurkez dezaten, eta epe hori ezingo da luzatu.

Nahiz eta justifikazioa epe osagarriaren barruan aurkeztu, Dirulaguntzen Foru Arauaren arabera dagozkion zehapen guztiak ezarriko zaizkio onuradunari.

Erakunde onuradunaren betetze-maila erabateko betetze-mailatik oso hurbil badago eta bere konpromisoak zalantzarik gabe beteko dituela egiaztatzen badu, ez du itzuli beharko, kasuan kasuko inguruabarrak kontuan harturik, eman zaion dirulaguntzaren % 20 baino gehiago.

16 oinarria. Zehapen-araubidea.

1. Pertsona onuradunek Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluko I. kapituluaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen dirulaguntzak emateko erregelamenduan (2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzeko da araudi hori) jasotako egite edo ez-egiteetako bat eginez gero, edozein, zehapen-prozedura hasiko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta Euskal Administrazio Publikoen zigortzeko ahalmenari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legeak xedatutakoaren arabera.

3. Las personas beneficiarias podrán proceder a la devolución voluntaria de la ayuda concedida, comunicándolo al Servicio Agrícola. Por el Departamento de Medio Natural y Agricultura, mediante Orden Foral, se establecerán los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral de Subvenciones, hasta el momento en que se produjo la devolución efectiva por parte de la persona beneficiaria.

4. La aplicación de las ayudas a fines distintos de aquellos para las que fueron concedidas dará lugar al reintegro de la subvención concedida.

La ocultación de datos por parte de la entidad solicitante podrá dar lugar a la exigencia del reintegro de la subvención concedida más los intereses de demora correspondientes.

Si transcurrido el plazo otorgado para la presentación de la documentación justificativa contenida en la base 11 del presente Decreto esta no se hubiera presentado, se acordará el inicio del procedimiento de reintegro de la subvención, previo requerimiento a fin de que dicha documentación sea presentada en el plazo improrrogable de quince días hábiles.

La presentación de la justificación en el plazo adicional establecido no eximirá a la entidad beneficiaria de las sanciones que, conforme a la Norma Foral de Subvenciones, correspondan.

Si el cumplimiento por la entidad beneficiaria se aproximare de modo significativo al cumplimiento total y se acreditare por ésta una actuación inequívoca tendente a la satisfacción de sus compromisos, la cantidad a reintegrar atendidas las circunstancias del caso no será superior al 20% del importe total de la subvención concedida.

Base 16. Régimen Sancionador.

1. La comisión por las personas beneficiarias de cualquiera de las acciones u omisiones constitutivas de infracción administrativa de subvenciones, contenidas en el capítulo I del Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, anteriormente citada, dará lugar a la apertura de un procedimiento sancionador de conformidad con la Ley 39/2015 de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común, la ley 40/2015 de 1 de octubre de régimen Jurídico del sector público y la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas.





Arau-hausteak zehatu ahal izango dira, diruzko zein ez-diruzko zehapen edo zigorren bidez, arautegi horretan ezarritako kasuetan eta eran.

2. Honako hauek izango dira dirulaguntzei lotutako administrazioko arau-hausteen erantzuleak: maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan arau-haustetzat tipifikatutako kasuetan egite edo ez-egite baten ondorioz sartzen diren pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak eta arau horren 10.3 artikuluan aipatutako nortasunik gabeko entitateak, eta, bereziki, hauek:

a) Dirulaguntzen onuradunak eta 5/2005 Foru Arauaren 10. artikulua 2. zenbakian eta 3. zenbakian (2. lerroaldea) aipatutako pertsonak edo erakundeetako kideak, hartutako konpromisoaren arabera egin behar dituzten jarduerari dagokienez.

b) Erakunde laguntzaileak.

c) Jarduteko gaitasunik ez duten dirulaguntzen pertsona onuradunen legezko ordezkaria.

d) Dirulaguntzaren xedearekin edo justifikazioarekin zerikusia duten pertsona edo erakundeak, zeinek —laguntza emateaz gainera— eskatzen zaizkien agiri guztiak aurkeztu beharko dituzten 5/2005 Foru Arauaren 41. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

3. Zehapena ezarri edo ez, onuradunek itzuli egin beharko dute bidegabe lortutako dirulaguntzaren zenbatekoa.

III. KAPITULUA Deialdia

17. oinarria. *Noiz eta non aurkeztu eskabideak.*

1. Laguntzen eskabideak hilabeteko epean aurkeztu ahal izango dira, foru-dekretu hau BAO n argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Eskabideak aurkezteko epea eskabideak elektronikoki aurkezteko gaitutako azken eguneko 13:30ean amaituko da.

2. Eskabidea Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko da, egoitza elektroniko horretan dagoen prozeduraren bidez: www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios.

Las infracciones podrán ser sancionadas mediante la imposición de sanciones pecuniarias y no pecuniarias en los casos y forma establecidas en dicha normativa.

2. Serán responsables de las infracciones administrativas de subvenciones las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, así como los entes sin personalidad a los que se refiere el apartado 3 del artículo 10 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, que por acción y omisión incurran en los supuestos tipificados como infracciones en dicha Norma Foral y, en particular, las siguientes:

a) Las personas beneficiarias de subvenciones, así como las y los miembros de las personas o entidades contempladas en el apartado 2 y segundo párrafo del apartado 3 del artículo 10 de la Norma Foral Norma Foral 5/2005, en relación con las actividades subvencionadas que se hubieran comprometido a realizar.

b) Las entidades colaboradoras.

c) El o la representante legal de las personas beneficiarias de subvenciones que carezcan de capacidad de obrar.

d) Las personas o entidades relacionadas con el objeto de la subvención o su justificación, obligadas a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 41 de Norma Foral 5/2005.

3. La imposición de sanciones será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

CAPÍTULO III Convocatoria

Base 17. *Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

1. Las solicitudes de ayudas podrán presentarse en el plazo de 1 mes a partir del día siguiente de la publicación de este decreto foral en el BOB. La presentación de solicitudes finalizará a las 13:30 horas del último día habilitado para la presentación electrónica de las mismas.

2. La solicitud se presentará en la sede electrónica de la Diputación foral de Bizkaia a través del procedimiento que figura en dicha sede electrónica: www.ebizkaia.eus/es/catalogo-de-tramites-y-servicios.





3. Era berean, onargarriak izango dira foru dekretu hau argitaratu aurretik egindako aurreeskabideak.

18. oinarria. *Aurkeztu beharreko agiriak.*

1. Eskabideak Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan xede horretarako ezarritako formularioak erabiliz aurkeztuko dira, azalpen-memoria batez lagunduta, non zehatz adierazi behar diren:

a) Garatutako edo aurrez ikusitako jarduera eta ekimenen edukia, entitateak eskabidea aurkezten den ekitaldian eskatutako eta dirulaguntza jaso dezaketen gastuen arabera (4. xedapenean jasotzen dira gastuok).

b) Ustiategi bakoitzaren ekarpen-kuota.

c) Laguntzaren beharra eta zenbatekoa ebaluatzeko baliagarriak izan daitezkeen beste alderdi guztiak.

d) Hartzekodun-fitxa.

2. Interesdunak aurkeztutako eskabidean okerren bat edo zehaztasun ezaren bat badago edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez baditu, errekerimendua egingo zaio, hamar eguneko epean okerra zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko. Halaber, ohartarazi egingo zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egindakotzat joko dela, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan ezarritako moduan ebazpena eman ondoren.

3. Edozelan ere, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio aurkeztutako eskabideak ondo ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotako dokumentazio eta/edo informazio osagarria. Arau honetan aurrez ikusita ez dagoen guztian Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean jasotakoa aplikatuko da.

3. Igualmente, serán admisibles aquellas presolicitudes que se hayan realizado con carácter previo a la publicación del presente Decreto Foral.

Base 18. *Documentación necesaria a aportar.*

1. Las solicitudes se presentarán en los formularios establecidos al efecto en la sede electrónica de la Diputación Foral de Bizkaia, acompañadas de una memoria descriptiva, en la que se detalle el siguiente contenido:

a) Las actividades e iniciativas desarrolladas o previstas a realizar, en función de los gastos subvencionables solicitados previstos en la base cuarta, durante el ejercicio económico en el que se presenta la solicitud.

b) Cuota de aportación de cada explotación.

c) Todos aquellos otros aspectos que pudieran ser de utilidad para evaluar la necesidad y el importe de la ayuda.

d) Ficha de acreedor.

2. Si en la solicitud presentada se advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud, o bien no reuniera todos los requisitos establecidos, se requerirá a la persona interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

3. En cualquier caso, se podrá requerir a la solicitante cuanta documentación y/o información complementaria se estime necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.





19. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

Aurkeztutako eskabidean akatsen bat edo zehaztasun-faltaren bat dagoela ikusten bada, edo ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badira, interesdunari eskatuko zaio hamar eguneko epean akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitako moduan emandako ebazpenaren ondoren.

Nolanahi ere, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu, ebaluatu eta izapidetzeko beharrezkotzat jotzen den dokumentazio eta/edo informazio guztia eskatu ahal izango zaio eskatzaileari. Arau honetan aurreikusten ez den guztian, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitakoa aplikatuko da.

20. oinarria. *Aurrekontu izendapena.*

2026ko ekitaldirako, ezarri den aurrekontuko diru-izendapena, guztira, ehun mila (100.000) euro da hurrengo kontu-partidaren kargura:

Base 19. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Si en la solicitud presentada se advirtiera la existencia de algún defecto o inexactitud, o bien no reuniera todos los requisitos establecidos, se requerirá al interesado o interesada para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

En cualquier caso, se podrá requerir a la persona solicitante cuanta documentación y/o información complementaria se estime necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y tramitación de la solicitud presentada, señalándose que, en lo no previsto en la presente norma, resultará de aplicación lo previsto en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Base 20. *Consignación presupuestaria.*

Para el ejercicio correspondiente al año 2026 se establece como consignación presupuestaria por un importe total de cien mil (100.000) euros, con cargo a la siguiente partida presupuestaria:

CENTRO GESTOR KUDEAKETA ZENTROA	PROGRAMA PROGRAMA	CLASIFICACIÓN ECONÓMICA SAILKAPEN EKONOMIKOA	EJERCICIO EKITALDIA	PROYECTO DE GASTO GASTU PROIEKTUA	IMPORTE ZENBATEKOA
0205	412103	45100	2026	2007/0626	100.000 €





Dirulaguntzak egotzi behar zaizkien aurrekontu-izendapen eguneratuak agortzea dirulaguntzak ezesteko arrazoia izan daiteke, eta, hala gertatuz gero, dirulaguntza gehiago ematea eten egingo litzateke.

Podrá ser causa de denegación de la concesión de ayudas el supuesto de agotamiento de las consignaciones presupuestarias actualizadas a la que deben imputarse, suspendiéndose la concesión de nuevas ayudas.

Indarrean dagoen legedian xedatutakoaren arabera, deialdi honetan aplikatzeko zenbateko gehigarriak izango dira Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikulua aplikatuz erabilgarri dauden kredituak, gehienez 2.000.000 euroko zenbatekora arte. Foru-agindu bidez, ondoriozko kreditu erabilgarriak eta haien behin betiko banaketaren deklarazioa argitaratuko da, dirulaguntzak emateko ebazpena eman baino lehen. Horrek ez du esan nahi berriak aurkezteko epea ireki behar denik.

De conformidad con lo dispuesto en la legislación vigente, tendrá carácter de cuantía adicional para su aplicación en esta convocatoria aquellos créditos disponibles en aplicación del artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, hasta un importe máximo de 2.000.000 €. Mediante orden foral se publicará la declaración de créditos disponibles resultantes y su distribución definitiva, en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones, sin que ello implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes.

Deialdiaren aurrekontu-zuzkidura eskaera guztietarako nahikoa ez bada, eta organo eskudunak modu proportzionalen banatu izan balu dirulaguntzetarako gehieneko guztizko zenbatekoa dirulaguntzaren onuradunen artean, gerora kreditua handitzen bada, deialdiari buruzko ebazpenean dauden proiektuak finantzatzeko erabiliko da handitze hori, artatuak izan ez diren zatian, modu proportzionalen, dirulaguntzaren onuradunen artean.

En el caso de que la dotación presupuestaria establecida no hubiera alcanzado para atender a la totalidad de las solicitudes, y el órgano competente hubiera procedido al reparto proporcional entre las personas beneficiarias de la subvención del importe global máximo destinado a la subvención, los eventuales aumentos sobrevenidos de crédito se destinarán a financiar, en la parte que no hubieran sido atendidos, los proyectos que figuren en la resolución que resuelva la convocatoria, de manera proporcional, entre las personas beneficiarias de la subvención.

